



Hasiera borobila

Dani Saldise areto futboleko jokalaria piztu zuen Irurtzungo festei esaera eman zien suziria.
Gaur hasiko dira Bakaikuko festak eta bihar Olatzagutikoak / 8-9

Urteko bigarren hauteskundeak

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak hilaren 23an, iganderarekin, izanen dira / 6

Bakaikuko Udalak argiteria publikoko bonbillak LED argiengatik ordezkatu du / 5

Altsasuko Udalak eta Altsasuko Dendari Elkarteak kontsumo bonuen kanpaina martxan jarri dute / 7

Irati Igoak Espainiako hondartza futbol txapelketa du jokoan Melillan, Nafarroako selekzioarekin / 13

Desiratutako San Fermin motozerra txapela irabazita, "bizipoz izugarria" du Mikel Lasartek / 14

Satrustegin eta Dorraon baratzeak ureztatzeko azpiegitura finko bana dute / 2-3

Chuchin Ibañezek mexikar musika berrasmatu du; gaur eta etzi Sakanan izanen da / 15

Alfredo Alvaro Igoa SATRUSTEGI

Nekazaritzarako ezinbesteko elementua da ura, are gehiago klima aldaketaren testuinguruan. Satrustegiko baratzeak urez ongi hornituta daude, kontzejuak horretarako beharrezko neurriak hartu baitzituen aspaldi. Andia mendilerrotik Galtzadako erreka jaisten da Satrustegira. Herriatik hegoaldera 160 bat metro ibiliz gero, erreka porlanezko kanal batera heldu dela ikusten da. Puntu horretan, ekialdera egiten du kanalak.

Baina Satrustegiko baratzeak ureztatzeko sistema azaldu aurretik, efemeride bat. *El Pensamiento Navarro* egunkariak 1966ko azaroaren 10eko zenbakiko azken orrialdean azaldu zuenez, "denboralea gogor jotzen ari da Europa (...) larunbatz geroztik gogoz ari da euria egiten". Hainbat herriren egoeraren berri eman zuen, tartean "kalte handiak" zeuden Satrustegiren berri. "Ibaiak kalte handiak eragin zituen Satrustegin igandean (1966-11-06). Herriko kalenagusiak itxura kaotikoa eskaintzen zuen. Espaloiak atera ziren, eta ur hodiak biluzik gelditu, agerian gelditu ziren. 400 bat metro luzeko kale Nagusia urak ekarritako zuhaitz eta zuhaixkez bete ta gelditu zen. Sakan bihurtuta gelditu zen. Urak etxe batzuetan sartu dira, eta nekazaritzan kalteak eragin ditu".

Uholde haren ondoren, herria erditik zeharkatzen zuen erreka kanalizatu zuten, eta herriatik 160 metro hegoaldera erreka ekialderantz desbideratu zuten. Baina herriko kaleen azpian erreka ibilgua mantentzen da, eta han jasotzen dira euri urak. Lurpeko ur pasabide hori beti garbi egoteko, errekatik ur emaria txiki bat hartzen da urte guztian.

Ureztatzeko sistema

Martin Martinez Aznarez Satrustegiko Kontzejuko presidentea izan zen 2007-2011 urteen artean, eta berak eman digu herriko baratzeen ureztatzeko sistemaren berri. Azaldu duenez,



Martin Martinez Aznarez menditik kanalizatuta jaisten den erreka aurrean. Handik hartzen dute ureztatzeko ura.

Ur faltarik gabeko baratzeak

Satrustegiko baratzeetan ez da sekula urrik falta. Kontzejuak ureztatzeko sistema bat egin du aspaldi. Haren bidez baratze bakoitzera ura eramaten dut. Horrek, jakina, baratzea jartzea errazten die herritarrei

Satrustegiko iturburu eta ur biltegia herriaren hegoaldean daude. Handik soberan gelditzen zen ura baratzeak ureztatzeko baliatzen zuten garai batean. Gaur egun, ordea, Satrustegi Urdalurko uberakako urez hornitzen da. Horregatik, orain lehen baino ur gehiago erabil dezake ureztatzeko.

Herriatik hegoaldera 160 metro egin, eta han kanalizatutako erreka ikusten da. Ekialdera hartzen duen tokian porlanak zulo bat du eta handik erreka ur zati bat desbideratzen da. Martinezek azaldu duenez, "tranpa honetatik interesatzen zaigun ura hartzen dugu; gainontzekoak errekan

segitzen du. Baina negurako itxi egiten dugu, eta ur guztia errekatik doa". Bi tokitan bukatuko du desbideratutako ur horrek: zati batek herria lur azpiko kanalizaziotik zeharkatuko du; besteak baratzetan bukatuko du.

16 cm-ko diametroa duen PVCko hodiak azekiatik herri sarretaraino lurpean egiten ditu 160 metroak. Bi puntuen artean badira baratzeak, eta horiek urez hornitzeko erregistro kutxatilik daude. Ura behar dutenetan, baratzeetako jabeek hura zabaldu; eta ura haienera desbideratzen dute, eta gero itxi. Gainontzeko baratze jabeek urari baratzerako pasa itxi edo zabalteko uhate

giltzak dituzte. Horiek herriko kaleko zoruan daude.

Herriaren hegoaldeko sarreran PVCko hodiko uraren zati bat atera egiten da eta kaleko lurpeko kanalizaziora sartzen da. Emaria handia bada, ur gehiago bideratzen dute erreka. Euri ura ere han sartzen da. Gainontzeko urak lurpean aurrera segitzen du. Han bertan ura lurpeko putzu batean sartzen da. "Putzuak bi bat metroko sakonera izan behar ditu. Ura bertara erortzen da. Harea eta zikinkeria ekartzen baditu behean gelditzen dira. Putzuaren hondotik metro eta erdira iragazki bat dago, eta handik pasatzen den ura urezta-

tzeko da. Porlanezko kaleetan 11 cm-ko diametroa duen polietileno hodi bat jarri genuen, eta, haren bidez, herrian barna zabalteak da ureztatzeko ura". Eliza parean bi adarretan banatzen da hodia: mendebaldera eta iparraldera.

1966ko uholde haren ondoren kaleak egin zituztenez, ureztatzeko sistema ere egin zuten. Oraingo polietileno hodiaren ordez, porlanezko kanaletak egin zituzten. "Dena porlanean eginda, lan handia izan zen hura. 20x20 cm-ko kanal bat zen. Herri guztian, goitik behera, porlanezko tapa batzuk zeuden. Ez dakit noiz egin zuten; beharbada, uholdearen ondoren baliatu zuten egiteko". Satrustegiko sareak eta kaleetako zoru berria 2017ko irailaren 23an mustu zituzten.

Zorua berri ez zen tokietan garai bateko kanaletaren bidez iristen da ura baratzeetara. Bestetik, apaiztetik beherako sarea duela 30 bat urte pasatxo egin zuten. Baratzeetan barna doa.

Egutegia

Ura norberaren baratzerako bidez iristen da ura baratzeetara. Bestetik, apaiztetik beherako sarea duela 30 bat urte pasatxo egin zuten. Baratzeetan barna doa. Gainera, herrian, 50 bat metrora garbiketa putzu bat egin dute. Martinezek azaldu duenez, "noiz-bait hodia buxatuz gero, garbiketa enpresa etorri eta putzu horien bidez hodiak libratzeko aukera izan luke. Egin dagoen moduan, putzu batetik besterako tartek garbitu daitezke, zatika. Baina eraiki genuenetik ez du arazorik eman, eta ez dugu garbitu behar izan".

Inor urrik gabe ez gelditzeko, Satrustegiko Kontzejuak ureztatzeko bakoitzak ura zein garritan har dezakeen zehazteko egutegia egin du. Horren arabera, zehaztuta daude ura zein egun eta ordutan hartu dezaket. Baratzeetara bideratzen den ur hori biltegitatu egiten dute.



Horretarako, baratzeetan ura jasotzeko porlanezko putzuak eraiki zituzten. "Aurretik ureztatzen zutenenak dira putzuak. Baratze handiagoa dute. Nik txikia dut, eta ur gutxirekin nahikoa dut. Bestetik, baratzeari eskaini diezaiokezun denbora dago, jubilatuta zauden edo ez". "Putzua duenak denbora gehiago hartzen du ura, ureztatzen dutenek, dagokien orduan egin behar dute". Bestela, plastikozko ontzi handiak erabiltzen dituzte ura jasotzeko. Martinezek jakinarazi duenez, "nik ez du putzurik. Bi mila litroko bi bidoi dauzkat. Dagokidanean bete egiten dut, eta, ondoren, ureztatzen dut. Putzua dutenek, behar bada, gau osoa baliatzen du putzua betetzeko. Gainontzekook egunez egiten dugu, bakoitzari dagokionean". Behin putzua edo bidoiak beteta, duten ur hori ureztatzeko kudeatu beharra dute, "hurrengo txandara arte. Batzuetan ez duzu behar eta besteren bati uzten diozu, edo eskatzen dizute", azaldu du Martinezek. Gerta liteke putzu batekin bi baratze ureztatzea. Dena dela, ureztatzeko ura baliatzen duen satrustegiari bakoitzak kontzejuari 20 euro ordaintzen dizkio urtean.

Joan den urteko lehortez galdetuta, Martinezek azaldu duenez, "juxtu-juxtu ibili ginen. Batzuk ongi ibili ziren. Etxeko ura ureztatzeko debekatu ez zutenek, nik etxekoa erabili behar izan nuen". Satrustegiarrak nabarmendu duenez, "baratzean etxeko ura botatzea nabaritzen da. Landarea ureztatzen baduzu eta eguzkiak berehala jotzen badio, kloroagatik landarea erre egiten da. Ureztatze sistemako ura naturala da". Normalean, maiatza edo garagarrilean jartzen dute ureztatze sistema martxan. Aurten gutxi erabili dutela aitortu du Martinezek.

Goitik beherako bidea egiten du urak eta, beraz, putzuak eta bidoiak betetzeko haren presioa nahikoa da. Ez dute ez punparik ez bestelakorik behar. Inork uhate giltzarik itxiko ez balu, urak ureztatze sistemari barnako bidea egin ondoren; eta, handik, ibaira joan litzateke.

Kontzeju etxearen eta elizaren ondoan iturria eta aska dituzte. Askako ura ureztatze sarekoa da, iturrikoa, berriz, Urdalurko sarekoa. Azken horrek kontagailua ere badu.



Erregistro kutxatila herrira bidean.



Herria lurpetik zeharkatzen du erreka.



Ureztatzeko uhate giltzak zoruan.



Baratze batean ura putzuan gordea.



Kontzejuak egindako egutegia.

Galtzen zen ura baliatzeko modua

Dorrobarrak dute baratzea. Etxeko iturriko urarekin ureztatzen ur biltegian soberan zegoen urarekin ureztatzen pasa ziren orain dela zortzi urte. Horretarako, ura jaso, biltegitatu eta herrian barna banatzeko sistema jarri zuten auzolanearan

Alfredo Avaro Igoa DORRAO
Herrian dauden baliabideak egoki erabiltzea ezinbesteko jo zuten dorrobarrak. Horregatik, ur biltegian soberan zegoen ura, ubeldean bukatu beharrean, aprobetxatu eta baratzeak ureztatzeko erabiltzea eskatu zioten Dorraoko Kontzejuari. Handia edo txikia, guztiek baitute baratzea herrian. Jakina, batzuek baratzeari bestek baino denbora gehiago eskaintzeko aukera dute. Toki erakundeak bere egin zuen herritarren eskaera. Garai hartan, duela zortzi urte, kontzejuan zegoen Pedro Diez de Ulzurrun Munarriz. Berak azaldu digu zertan datzan Dorraoko baratzeak urez hornitzen duen sistema.

Ur biltegiturako bidean, Korosobide kalearen ertzean, ur emariak behera egiten du. Diez de Ulzurrunek azaldu duenez, "ur biltegitan soberan dagoen ura da. Urte guztian soberan dago, sekula ez da urrik falta izan. Soberan dagoena ibaira doa. Hori galtzea pena zen". Joan zen urtean soberako emaria "eskasagoa" izan zela, "baina, hala ere, bazegoen" nabarmendu du.

Diez de Ulzurrunek azaldu duenez, Dorraon etxeetan ur kontagailuak baldin badituzte ere, ez dituzte erabiltzen. "Herritar bakoitzari urtero kanona kobratzen zaio, berdin da zenbat gastatzen duen. Sakanako Mankomunitatearen Ur Zerbitzuak mantentzeagatik eta ura kloratzeagatik kobratzen du". Garai batean dorrobarrak "gehienek etxeko iturritik ureztatzen zituzten baratzeak. Ikusita ur hura galdu egiten zela, etxeko iturriko ur kontsumoa murriztuz gero dirua aurreztu zitekeela ikusi genuen. Erabaki bakarrarekin bi helburu bete ziren: soberako ura ureztatzeko erabiltzea, gainera, ureztatzeko kloroduna baino hobea da; eta kloratutako ura aurrezte". Aitortu du ere dirua aurreztearen kontua ez dutela egin.



Dorrobarrak eskatuta, Pedro Diez de Ulzurrun kontzejuan zela jarri zen sistema.

"KONTZEJUAK EZ ZUEN INBERTSIO HANDIRIK EGIN. AUZOLANEARAN EGIN GENUEN LANA"

Sistema

Diez de Ulzurrunek azaldu duenez, "biltegia beteta dagoenean, soberan dagoen ura aldamenearan dagoen karga ontzira pasatzen da. Horrek ur kopuru handi bat izatea ahalbidetzen digu. Presio horrekin ura herri guztira iristen da. Eta hemen guztiek, gutxi gorabehera, ordu berean ureztatzen baitugu". Karga ontzi horren beheko partean hodi beltza lotuta du, baratzeetara ura eramaten duena. "Aspaldi egindako gauza on bat dugu herrian: euri urak jasotzeko galeria bat dago herriko kaleen azpian. Iturrien eta teilatuetako ura jasotzen zuten, kaleetatik kenduz. Kuxkurtuta bada ere, galeria barruan ibil daiteke. Beraz, hodia ur biltegitik galeriara eraman, eta ahal zen baratze guztietara eraman genuen", azaldu du Diez de Ulzurrunek.

Hodiak hasiera lur azaletik egiten du. Ur hartune bat ikusgai dago. "Aldamenekoak mahuka sartu gilitza zabaldu eta ura aterako zaio. Batzuei hartunea baratzeetik gertuago gelditzen zaie; besteei, urrutia. Ahal zena egin genuen. Hartunetik baratzeera arte ura mahukarekin eramatea norberaren ardura da".

Baratze guztietara ura eramateko hodiak hainbat adar ditu. Hartuneak han-hemenka jarri zituzten, kasuren batean estolda barruan. Argitu duenez, "ur hartune batzuk partekatuta dira, ez baita posible etxe guztietara iristea". Diez de Ulzurrunek azaldu duenez, "ura bideratzeko ez genuen inbertsio handirik egin. Auzolanearan egin genuen lana; guztion ondasuna zenez, denok egon ginen lanean. Materiala polietilenoko hodia da". Izotzarekin arazorik ez izateko sistema karga ontzia eta hoditeria hustu egiten dituzte neguan. Maiatzean edo garagarrilean hasten dira ureztatzen, "joan zen urtean lehenago hasi ginen. Kale egin zuen urak, baina ordura arte, sekula. Baina izan genuen". Sistemaren emaitzarekin, dorrobarrak pozik daude.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Inertzia

Inertzia hitza baliatu behar nuelako, hiztegiara jo dut argibide bila. Euskaltzaindiaren hiztegiak bi adiera jasotzen ditu: lehenengoa, *'materiaren ezaugarria: gorputz batek bere mugimendu egoeraren aldaketei kontra egitean datzana'* (autoan abiaduran goazenean, bolantea azkar biratuz gero, gure gorputzak aurreko norabidean segitu nahi izaten du); bigarrena, *'arrazoitu gabe eta ohitura hutsez ekintza bat errepikatze joera'*. Azkeneko adiera honetarako RAE akademia espainiarrak, zehaztapena eginez, *'utzikeria'* gehitzen dio, latineko *'inertia'* formatik, ekintza falta.

Halakoxea gertatzen ari ote den, oro har, euskaldunen eta euskaltzaleen mugimenduarekin. Izan ere, garai batean susperraldia izan zen euskararen eta, oro har, euskal kulturaren alde (ikastolak, euskaltegiak, hedabideak, eskola publikoak, teknikarien sareak, kantagintza...). Alabaina, urteak daramatzagu sugar hura itzaltzen ariko balitz bezala, edo behintzat ez garatzen. Sortutako tresna haiek eta jende askoren gogoak desgaste inertzia batean sartuak ote diren. Eta, teknologia gizartearen iraulia ekarri du. Erdararen presioa arlo guztietan izugarria, are gehiago

ERDARAREN ITSASO ZABAL HORRETAN, EUSKARAZKO ERREFERENTEAK TXIKI ETA AHULDUTA

erreferenteak txiki eta ahulduta. *Berria* egunkariko gutun batean leituta, Gernika herrian euskaraz aritzeagatik gazte bati *'etarra'* eta *'vaskito'*. Horrela, ezin argiago azalduta.

Igandean bozka ematera deituta gaude. Nork bere arrazoiak izanen ditu: Jendarte koloredun eta askea, ala zuri-beltza eta autoritarioa. Justizia soziala ala jauntxoek zikoizkeria, gehiegizko diruzalekeria. Tren soziala ala txikizioaren kultura. Nafarroaren hitza eta erabakia, ala kanpotik ezarritako neurria. Baina, bada bat oso kontuan hartzekoa, eta ez soilik iganderako, legealdi osorako behar lukeena, euskaldun eragile izatearena. Alde batera inertiak eta utzikeriak. Bozka euskaldun!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Hauteskundeak

ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

Denbora gutxi igaro den arren, berriz ere hauteskundeen bezperan gaude honakoan. Iritsi da lau urtean behineko espektakulu bera, bozken gosez piztiak elkarri hozkaka, funtsean aldaketa gutxi egon daitezen. Beteko ez diren promesak egiteko momentua, ahoa hitz politez betetzekoa, alderdi instituzionalen aurrekanpaina politikoa: mitinak, propaganda, sare sozialak, bozka emango ez duen horren aurkako mezuak...

Soilik bi bando daudela diote: faxistak eta demokrotak. Abstentzioa ulergaitza dela diote, honek faxismoa indartuko lukeelako; baina, aldiz, pixkanaka, politika instituzionalarekiko konfiantza jaisten doa. Bozka emango ez duen horren ardura izan ordez, politika instituzionalaren mugen ondorio da, hartutako neurrien ondorio: poliziaren normalizazioa, ertzaintzaren omenaldietara joatea, okupazioaren kontrako ofentsiba, neurri autoritarioen gorakada, NATOren indartzea,

aurrekontu militaristak onartzea, etxegabetzeak ezin gelditzea, etab.

Politika egitea ez da soilik lau urtean behin bozka ematea eta demokraziaren festan sinistea, baizik eta egunerokotasunean antolatzea. Gurea kanpaina politikoa eternala da, mundu hobe baterako daukagun grinak ez baitu ulertzen lau urtean behin soilik agertu daitekeenik. Etengabea da, etengabe egon behar dugu gazteria antolatzen, antolakuntza politikoko iraultzailearen bandera indartsu astintzen.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Pintamonas

Min handiz idatziko dizuet gaur, lagunok, ene haurtzaroko pertsona garrantzitsuena hil baitzen aurreko igandean, 87 urte zituela, Bartzelonan, beti bizi izan zen etxean, Sant Marti auzoan: Francisco Ibañez.

Ospea lortu bazuen ere, Ibañez beti izan zen pertsona umila. Bere buruaz barre egiten zuen askotan bere umore xeblearekin. "Pintamonas" deitzen zuen bere burua askotan.

Hiztegian ez dago hitzik pertsona honi diodan mirespena azaltzeko. Ibañezi esker naiz ni gaur naizena. Ez dut txikitako oroimen askorik,

baina ditudan oroimen gutxietan beti dago gertu Ibañezen komikiren bat. Beti kontatzen dut Mortadelo eta Filemonek irakatsi zidatela irakurtzen, eta kontakizun dibertigarri bat badirudi ere, benetan eta bihotzez sinesten dut hori egia dela. Hori baino askoz gehiago eman zidan Ibañezek. Komikiak idazten eta marrazten asteko gogoia piztu zuen nire barruan. Gaur egun ere ene barnean piztuta daramadan indar hau berak eta bere komikiek sortu dizkidate. Ene umore sen bitxia, nik marrazten dudana estila... Beti izan ditut komikiak gustuko, eta beti izan dira nire bizitzaren parte garrantzitsuak. Era batera edo bestera. Komiki horietako lehenbizikoa Mortadelo eta Filemon izan zen, zalantzarik gabe.

Maisu bat galdu dugu, eta nik haurtzaroko lagun min bat galdu izan banu bezala sentitu dut. Ez genuen inoiz elkar ikusi. Ezta inoiz elkarrekin hitz egin ere. Hala eta guztiz ere, Ibañezek eta nik milaka abentura bizi izan genituen elkarrekin. Hainbat gehiago biziko ditugu, haren arimak bizirik jarraitzen baitu idatzi zuen txiste eta marraztu zituen biñeta guztietan.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Abuztuaren 4an Udako berezia argitaratuko dugu, eta bertan ez da ez iritzi zutaberik ez gutunik argitaratuko. Ondoren, oporretara joanen gara irailaren 4ra arte eta hurrengo GUAIXE ASTEKARIA irailaren 8an argitaratuko dugu.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Bakaikuk argiteria publikoa berrituko du

Herriko argiteria publiko guztiko bonbillak kendu, eta LED argiak jarriko ditu. Gainera, eskola zaharren eraikineko lanek Bakaikuko Udalaren aurrekontuaren zati handi bat hartzen dute

BAKAIKU

Bakaikuko Udalaren aurrekontuak aurten 511.362,87 euroko sarrerak eta 511.229,82 euro irteerak ditu. Azken horiek joan zen urtean baino 80.000 euro gehiago dira. Gainera, udalak 224.561,82 euroko balioa duten inbertsioak egitea aurreikusi du. Egoitz Urritza Lazkoz alkatetik jakinarazi duenez, argiteria publikoan LED argiak jarzeko 137.000 euroko dirulaguntza jaso du udalak. Europako Next Generation dirulaguntzen barruan Dus 5000 programa dago, eta, haren bidez, bonbillak LED argiekin ordezkatzeko dituzte.

Inbertsioen gainontzeko zatia eskolak hartu zituen eraikinaren zaharberritzera bideratu du udala. Nasuvinsa enpresa publiko goiko solairuan hiru etxe egiteko lanak egiten ari da. Hitzartutakoaren arabera, udalak aurrekontuaren %15 ordaindu behar du. Horregatik, aurrekontuetako 31.000 euro inguru egiteko horretara bideratuko dira. Beheko partean haur eta gazte guneak eta erabilera anitzetako gela izanen dira. Horien barruko isolamendua eta leihoetarako 48.000 bat euro daude aurrekontuan. Gainera, lanak despeditzeko beste 80.000 euro bideratuko dituzte. Bide batez, erabilera anitzetako gela hautesleku bihurtuko da igandean. Eraikinaren eskuin aldetik joan eta atzeko aldean dagoen atetik sartu beharko dute bakaikuarrek. Sarbideak arranpa du.

Alkateak jakinarazi duenez, aurten ez dute baso edo nekazaritza azpiegituretako lanik egingen. Bestalde, Bakaikuko Udalak herriko etxearen errealitatearen erforma egin eta eraikinaren irigarritasuna hobetzeko 126.922,94 euro bideratzea pentsatuta zuen. Izan ere, udan beoagatik bulegoan ezin da egon, eta neguan berotzen gastu handia



Bakaikuarrek Santio plazan. ARTXIBOA

du. Hori dela eta, dirulaguntza eskatu zuen Nafarroako Gobernuari Toki Azpiegitura Planaren barruan. Foru administrazioak ez zuen eskaera erreserban utzi zuen.

Auzolana

Herriaren estrategia plana egitean, bakaikuarren lehentasunezko hiru gaitetako bat auzolana izan zen. Ordenantza egin, eta herriak oniritzia eman ondoren, hura joan zen urtean jarri zen indarrean. Haren arabera, 18 eta 55 urte arteko bakaikuarrek urtean auzolan bat egin behar dute. Ordenantza indarrean egon zen aurreneko urtean 102 bakaikuarrek egin zuten auzolana (%86). Gainera, hiru pertsona boluntario izan ziren. Beste 14 bakaikuarrek ez zuten auzolana egin, eta, ordenantzari jarraituz, isuna ordaindu zuten. Bestalde, udalak jakinarazi du bakaikuarrek auzolan egin daitezkeen lanak proposatu ahal dituztela eta proposamen batzuk egin zirela. "Ideiak ematen jarraitzera animatzen zaituztegu".

Joan zen urteko auzolanaren balantzea egitean, Bakaikuko

Udalak parte hartu zutenei eskerrak ematearekin batera, egingako ahalegina aintzat hartu du. Udalak adierazi duenez, "Bakaikuko bezalako herri txiki batek, gaur egungo gizartearen egituraketan, ezinbestekoa du auzolana bere azpiegiturak, zerbitzuak eta gizarte eta kultur garapena aurrera eramateko. 2022ko jardunaren balorazio positiboa egin dugu". Udalak horregatik udaberrirako eta festetarako auzolan deialdiak egin zituen.

Kontsultategia

Garai batean Bakaikuko medikuaren kontsultategia egunero zabaltzen zen. Asteazketan jende gutxiago joaten zela-eta, astegun horretan kontsultategia ixten hasi ziren ondoren. Pandemiaren etorrerarekin kontsultategia astean bitan zabaltzera pasa ziren: astearte eta ostegunetan. Iku-sita Iturmendin eta Urdiainen ere arazoak daudela, Bakaikuko Udalaren asmoa da beste bi udalekin hizketatzea eta iritziak trukatzeko. Udalaren asmoa litzateke kontsultategiak lehen eskaintzen zuen zerbitzua eskaintzera bueltatzea.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Gaur zuen baso zabaletan ibili naiz eta haritz eta pagoen gainean hegan nindoala, arropa-garbigailu bat ikusi dut orbel artean botata. Tamalez, ohikoa omen da baso baztarretan hondakinak topatzea. Aspaldi joan dira ba basora hondakinak eramaten ziren garaiak!

Basoan ez ezik, hainbat herritatik ere pasa naiz eta hozkailu, telebista zein sofak ikusi izan ditut. Gogoratu, etxetresna elektrikoak, obra-hondakinak edo beste hondakin bereziren bat baduzu, Arbizuko eta Altsasuko garbiguneak eskura dituzela eta bertara eramateko edo etxetik jasotzeko eskaera egin dezakezula eta Emausko Trapuketariak joanen zaizkizu jasotzera.

Kaleko edukiontzi guneak eta herrietako larrialdi guneak ere ez dira hondakin mota hauek uzteko lekuak. Kale edo basoraino eramateko modua baduzu, garbigunera ez gerturatzeke aitzakiarik ez duzu!



Mank
sakan



Financiado por el
Fondo de Residuos
Hondakinen Funtzak
Finantzatuta



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakinen Funtsak finantziatu du. Hondakinen Funtsa bereizi ez diren hondakinak zabortegian isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



Olatzea landa hotela. ARTXIBOA

Arbizuko Olatzeak agorrilean zabalduko ditu ateak

Zenbait urte itxita egon ondoren, Olatzea landa hotelak agorrilaren 1ean zabalduko ditu ateak atzera ere. Haren jabe den Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, hotela errentan emateko deialdira eskaintza bakarria aurkeztu da eta baldintzak betetzen zituen. Beraz, "agorrilaren 1etik aurrera zabalik izanen da bai hotela, bai terraza zerbitzua, nahi duenarentako". Olatzea landa hotelak 11 logela ditu 1. eta 2. solairuetan banatuta, egongela beheko solairuan, apartamentua eta jangela beheko solairuan (40 lagunendako edukiera), jantokia sotoko solairuan (60 lagunendako edukiera), zereal errota eta turbina erakusteko gunea, eta zerbitzu gela.

Urteko bigarren hauteskunde hitzordua igandean

Hautesle nafarrek kongresurako 5 hautetsi eta senaturako 4 aukeratuko dituzte. Bosgarren senataria Nafarroako Parlamentuak aukeratuko du. Igandean botoa ematera joaten diren sakanarrak kongresurako dozena bat hautagaitzaren boto paperak opatuko ditu. Alderdi eta koalizio guztiek ez dute senaturako hautagaitzarik aurkeztu.

Igandean 09:00etatik 20:00etara botoa emateko aukera izanen da. Nork bere burua identifikatzeko hiru agiri erabil ditzake: nortasun agiria, pasaporte (argazkiarekin) edo gidabaimena (argazkiarekin). Baliagarria da ere miDGT aplikazioaren bidezko gidabaimena. Berdin dio dokumentu horiek iraungita egotea, baina jatorrizkoak izan behar dute, fotokopiek ez dute balio.

Sakanan 19 hautesleku zabalduko dira, eta haietan 31 hauteskunde mahai izanen dira. Arbizun eskola publikotik udaletxeko areto nagusira aldatu dute hauteslekua iganderako. Presidente batek eta bi bokalek eratu dute mahai bakoitza. Hau da, 93 sakanar ariko dira hauteskunde mahaietan. Haietako bakoitzarendako bi ordeko ere aukeratu zituzten zozketa bidez, 186 sakanar. Igande gauetan hauteskunde emaitzen berri emanen du guaixe.eus webguneak.

Energia eredu gaitzeko, bidera

Gaur egungo energia eredu salatzen eta eraldaketa eskatzeko Nafarroan barna dabilzan bi martxek bat egin zuten Sakanan atzo. Extinction Rebellion mugimendukoak oinez ari dira, bizikleta gainean, berriz, Goiener elkarteak

SAKANA

Bestelako energia eredu bat aldarrikatzen duten martxetatik abiatzen lehena Extinction Rebellionena (XR siglez laburtua) izan zen. Hilaren 15ean abiatu zen eta hilaren 22an, larunbatean, bukatuko da. XR indarkeriarik gabeko erresistentzia erabiltzen duen mugimendu sozial ekologista da, klima larrialdia eta biodibertsitatearen galera salatzeko. Martxa gaur egungo energia eredu salatzen eta Nafarroako herri borrokan berri jasotzeko baliatu dute. Horretarako, hainbat eragilerekin batzartu dira. Altsasun, herenegun, Abiadura Handiko Trenaren kontrako, errausketaren kontrako plataformako eta pentsiodunen mugimenduko ordezkariekin izan ziren. Etxarri Aranatzen, atzo, Autopista Elektrikorik Ez! plataformak, Belardi eta Goienerreko kideekin elkartu ziren. Irurtzunen, gaur, gasbidearen kontrako plataformarekin batzartuko dira. Gainera, 14:00etako herri bazkarian izanen dira.

XRkoek salatu dutenez, gaur egungo energia ekoizpen ereduak "irabaziak maximizatzea du helburu, herritar guztien beharrei erantzun ordez. Ezinbestekoa da ekoizpena ondasun komunera bideratzea energiako oinarriko eskubidea bermatuz". Gaztiagatu dutenez, "aldaketa teknologiko hutsek ez digute herritar guztioi energia eskuratzeko oinarriko sarbidea bermatuko aldaketa sozioekonomikoen eskutik ez badatoz". Azpimarratu dutenez, "energia oinarriko ondasun mugatu gisa ulertzeko, gai horri buruzko erabakiak demokratizatzea beharra dago". XRkoen iritziz, "tokiko biztanleak, behar bezala informatuta, plangintza eta erabaki estrategikoak hartzeko prozesuen partaide izan behar dira. Era berean, produkzioaren eta kontsumoaren inguruan erabakitze ahalmen



Extinction Rebellionen kideak hainbat sakanarrekin Altsasuko plazan bileran.

handiagoa ematen duten energia-komunitateen gisako esperientzietan ere parte hartu behar dute". Nafarroako zazpi eskara egin dituzte: desazkundera eztabaida publikoan, energia plangintza, etxebizitza eraginkorra eta eskuragarria, elikadura burujabetza, garraio publikoa eta mugikortasun aktiboa, ekoizpen ereduaren berrantolaketa eta energia demokratizazioa.

Bizikletan

GoiEner elkarteak energiaren inguruko proiektuak ezagutzeko antolatutako bizikleta martxa astelehenean Iruñetik abiatu zen eta gaur Leitzaan bukatuko da. Elkarrekin egungo eredu energetikoa aldatzea helburu du. Bira energia aurrezpen eta eraginkortasunean sentsibilizatzen eta trebatzeko antolatu dute. Ibilbidean gaur egungo energia eredu gaitzeko interesgarriak diren energia sorkuntza eta hainbat proiektu bisitatu dituzte eta, aldi berean, egungo energia ereduak sortutako gehiegikerietan ere jarri dute arreta.

Izan ere, elkarteak tokian tokiko ekoizpena erraztu nahi du eta oinarriko ondasun horren

gainean inork kontrolik ezartzea eragotzi. Gainera, garraioan gertatzen diren galerak murriztu egiten dira eta tokiko garapen ekonomikoa indartu. Egungo energia eredu aldatzeko bost arlotan ari dira elkartekideak lanean: energia berriztagarriaren kontsumo arduratsua etengabe bulkatzen, tokian tokiko eta iturri berriztagarrietako energia ekoizpen deszentralizatuak laguntzen, kontzientziazioa sustatzen, gizarteak eredu aldaketan parte-hartzea bilatzen eta ingurumen, gizarte, eta ekonomia jasangarritasuna bulkatzen.

Bira Sakanara atzo iritsi zen. Lizarragan geldialdia egin zuten mikrosarea ezagutzeko. Ondoren, Etxarriko ikastola bisitatu zuten, Goienerrekin batera eguzki plakak jarri baitzituzten. Gainera, XRko kideekin bat egin zuten ikastolan. Gaur dute azken etapa. Lakuntzan eginen dute aurreneko geldialdia, 09:30ean. Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa aurrera egiteko Aralarren egin asmo dituzten zundaketen berri jasoko dute tropeleko kideek. 16:30ean, berriz, Aralar zeharkatuko lukeen gasbidearen berri jasoko dute Larraunen.

DUELA 25 URTE...



Sakana Rock 98

Sakanako rock taldeen aurreneko erakustaldia Altsasuko Udaleko Gazte eta Kultura Batzordeak antolatu zuen, eta garilaren 18an izan zen. Helburua zen erakustea nolako musika sortu zuten entsegu lokaletan emandako orduetan. Egun hartan oholta gainera Tinit Tus, Behin Betiko eta Reventon taldeak igo ziren. Antolatzaileen esperantza zen hurrengo urteetan talde gehiagok parte hartuko zutela.

Ikasle adoptatuendako protokolo premia

Beharrezkoa jo da ikastetxeetan ikasle adoptatuekin esku hartzeko protokolo proposamen bat sortzea, familiaren eta haurraren premiak kontuan hartuko dituen eta inplikaturako aldean arteko nahitazko lankidetzara ere jasoko duena

ALTSASU

Zahra Ballouk Guourar altsasuarra Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Lehen Hezkuntzako Irakasletzako gradu-duna da (euskarazko taldean). Ikasketak bukatu ondorengo Gradu Amaierako Lanean (GRAL) adopziozko familiek eta beren seme-alabek ikasleek dituzten premiei buruzko lana egin du. Ikerketa lan horretan Ballouk Javier Monzon Gonzalez NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslearen zuzendaritza izan du. Gainera, Nafarroako Adopziozko Familien Elkartearekin (Afadena) lankidetzan aritu da, eta familia horien ikuspuntua izan du ardatz.

Zehazki, Ballouken akademia lan horrek hiru helburu zituen. Batetik, haurren eskaera sozialak eta curriculumarekin lotutakoak ezagutzeko. Bestetik, adopziozko familiek beren premiei buruz zituzten iritziak biltzea. Eta, azkenik, arreta protokolo espezifiko bat proposatzea. Altsasuarrak GRALean jaso duenez, familiek azpimarratu dute premiazkoa dela haur horiek adopzioaren aurretik izandako babesgabetasunak eragin ditzakeen zenbait alderdi lantzea ikastetxean. Landu beharrekoen artean Balloukek honakoak zerrendatu ditu: autoestimua, egoera sozio-emozionala, arreta eta hizkuntzarekiko arazoak.

Bestalde, adierazi duenez, ikasle horiek beharrezkoa dute irakasleekin lotura egonkorra izatea eta beren egoeratik juzgatuak ez izatea. "Oso garrantzitsua da bai ikasleen arteko, eta bai ikasleen eta irakasleen arteko loturak sendotzea, harreman horiek errazteko, kohezio dinamiken bidez", aipatu du Balloukek.

Familiak

Ikerketa lanaren egilea Afadena elkartearen kideekin egon da. Hari



Blanca Burusko, Zahra Ballouk Guourar eta Javier Monzon tutorea. NUP

"HAURREI BEZALA, ADOPZIOZKO FAMILIEK ERE ENTZUN ETA ULER DIEZAIETEN BEHAR DUTE"

familiek nabarmendu diote entzunak izateko premia dutela, beren semea edo alaba arreta integratuta jasotzen ari dela jakitekoa eta ikastetxeak haien egoera eta beharrik ulertzen dituela ziurtatzeko. "Azken batean, familiek presentzia izan beharko lukete eskolan, ez bakarrik beren seme-alabei buruzko informazioa jaso", azaldu du Balloukek. "Funtsezkoa da familiarekiko lankidetzan aritzea eta komunikazioa izatea, modu horretan ikasgelako esku hartzea koordinatu eta doitu baitaiteke, betiere ikuspegi inklusiboarekin. Etengabeko komunikazioa edukitzeak esku hartzea eta ebaluazioa errazten ahal ditu" adierazi du.

Balloukek bere GRALean jaso duenez, azkenik, familiek nabarmendu dute irakasleek eta adingabeekin lan egiten duten ikastetxeko beste profesional batzuek

prestakuntza egokia izan behar dutela, baita ongi ezagutu ere ezbeharraren biziaren goiztiarrak ikasle adoptatuen ikaskuntzan eta sozializazioan izan dezakeen inplikazioa eta eragina.

Eskola, inklusibitatea, protokoloa

Balloukek bere ikerketa lanean adierazi duenez, beharrezkoa da ikastetxeetan ikasle adoptatuekin esku hartzeko protokolo baterako proposamen bat sortzea, familiaren eta haurraren premiak kontuan hartuko dituen eta inplikaturako aldean arteko nahitazko lankidetzara ere jasoko duena. Ikerketa egile altsasuarrak azaldu duenez, protokolo hori beharrezkoa da inkestan parte hartu duten familia gehienek ez dutelako uste ikastetxeek eskaintzen dieten esku hartzea egokia denik. "Haurrak entzunak izatea behar duten bezala, adopziozko familiek ere entzun eta uler diezaieten behar dute, gizartearen juzgurik eta kritikarik jaso gabe. Hori dela eta, ikastetxe inklusibo bat espero dute, non ikasle guztiak onartu, errespetatu, ulertu, baloratu eta aintzat hartuko baitira", azpimarratu du Balloukek.

Establezimenduak kontsumo bonuen kanpainara batu daitezke

Haiekin ondasunak edota zerbitzuak erosteko epea agorrrilaren 28tik irailaren 30era arte izanen da

ALTSASU

Altsasuko Udalak, Altsasuko Dendarien Elkartearekin (ADE) batera, *Altsasu oso gertu* kontsumo bonuen kanpaina abiarazi du, 15.000 euroko aurrekontua duena. Haren bide, udalak eta ADEk herriko ekonomiari bulkada eman nahi diote. Eta, bide batez, Altsasuko establezimenduetan kontsumitzeko joera sustatu eta herriko merkataritza sektorearen berraktibiziorako pizgarri izan nahi du ekimenak.

Udalak eta ADEk kanpaina 2020an eta 2021ean halako kanpainak egin zituzten. Haietan bezala, aurtengoan ere lehen-lehenik, txikizkako merkataritza eta zerbitzuen establezimenduek bat egiteko epea zabaldu dute. Agorrrilaren 28ra arte eman dezakete izena. Horretarako, www.altsasu.eus udalaren webgunean sartu eta dagokion galdetegia bete beharko dute. Herriko establezimendu guztiek eman dezakete izena, ADEko kideak izan edo ez. Baldintza bakarra da 300 m² baino gutxiagoko salmenta azalera izatea. Salbuespena altzari dendak dira. Kanpainarekin bat egin dezaketen establezimenduak honako arloetakoak izan daitezke: ile apaindegiak, estetika zentroak, argazki dendak, zapatarriak, arropa konpontzaileak, tatuaje zentroak, markoak jartzea, akademiak, kirol zentroak, bidaiaria agentziak, aseguruak, higiezin zerbitzuak, masajistak, fisioterapeutak eta abar.



Bonua eskuratzen. ARTXIBOA

Bonua

Aurten 1.350 bonu banatuko dituzte. Pertsona bakoitzak bonu bakarra eskuratzeko aukera izanen du. Horretarako, Iortia kultur gunetik ohiko ordutegian pasa beharko da agorrrilaren 28tik irailaren 24ra arte. Txartela hartzean, nortasun agiria aurkeztu beharko da.

Kontsumo bonua 10 euroko balioa duen txartela da. Kanpainara atxikitako establezimenduetan truka daiteke. Horretarako, erosleak gutxienez 40 euro erosketa egin beharko du. Hala, bonua aurkeztean, 40 euro beharrean 30 euro ordaindu beharko ditu. Izan ere, kontsumo bonuaren 10 euroko balioa udalak ordainduko dio atxikitako establezimenduari, ADEren bidez. Kontsumo bonuekin ondasunak edota zerbitzuak erosteko epea agorrrilaren 28tik irailaren 30era artekoa izango da. Azken data horren ondoren, bonuek balioa galduko dute.

2023/24 LAN ESKAINTZA ANDRA MARI IKASTOLA

Etzarri Aranazko Andra Mari ikastolak, 2023/24 ikasturterako behar hauek ditu:

Beharrik:

- **Teknologia eta Informatika irakaslea (DBH):** Jardunaldi erdia. Ingeniari informatikoa lehenetsiko da. C1 euskara. DBHn aritzeko masterra.
- **Administrari laguntzailea:** Jardunaldi erdia. Lanbide Heziketako titulazioa. C1 euskara.
- **Eskolaz kanpoko begiraleak:** Xako (LH) eta Sukaldaritza Ingelesez edota euskaraz (LH 4-6). Ahozko euskara maila ona.

Curriculumak web orrialdean sartu: www.andramariikastola.eus / Lan Poltsa

EPEA: ABUZTUAREN 15era arte

Zalantzaren bat izanez gero, gurekin harremanetan jarri (zuzendaria: adramariikastola.eus)

FESTAK

IRURTZUN FESTAK

UZTAILAK 21 Ostirala

10:00 Dianak.
11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
14:00 Kalderete lehiaketaren epaia.
Izena ematea: 13:00ak arte arkupeetan.
14:30 Kalderete bazkaria.
17:00 Bazkalostea eta Burrumba Elektrotxarangarekin kalejira.
17:30 Dabitxi Zirkua adin guztietarako Zirku tailerra, Gernika plazan.
18:30 Erremonte jaialdi profesionala: Nafarroako Foru Komunitateko XVIII. Txapelketaren kanporaketa.
19:00 Karaokea.
Barazkiguneak antolatuta.
20:00 Xaiborrekin musika emanaldia.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.
23:00 Kontzertuak: Baskibiltx, Katutaldie, Burutik eta Djungle taldeak.
Barazkiguneak antolatuta.
00:30 Oihan Vega diskofesta.

UZTAILAK 22 Larunbata

10:00 Dianak.
12:30 Zirika Zirkus taldearen Hemendikara kale antzerkia euskaraz, Foru plazan.
14:30 Jubilatuen bazkaria.
Ondoren, dantzaldia.
17:00-19:00 Haur eta familiendako parkea, Gernika plazan.
18:00 Afizionatuen Esku Pilota txapelketa. Elektropikala Elektrotxaranga, Barazkigunetik.
Barazkiguneak antolatuta.

19:15 Amico teatro taldearen Kinki Games kale emanaldia.
20:30 Ortzadar Fanfarrearen plaza dantza, Foru plazan.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika plazara.
00:30 Bambola taldearekin disko festa. Kontzertuak: Mouth, Jon Koldo Gudariak eta DJ Gordon 20. urteurrena.
Barazkiguneak antolatuta.

UZTAILAK 23 Igandea

10:00 Dianak.
11:15 Irurtzango Konpartsaren XL. urteurrena: Lakuntza, Lekunberri, Burlata eta Irurtzango erraldoi eta buruhandien konpartsen topaketa.
14:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra.
17:30 Irurtzango dantza txiki eskolaren emanaldia, plazan.
19:00 XXV. Eskorga kronoeskalada. Pikuxarrek antolatuta.
20:00 Joselu Anaiak taldearen dantzaldia.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika plazara. Afari autogestionatuta, Barazkigunen.
Ondoren, VI. Azeituna jaurtiketa lehiaketa.
Barazkiguneak antolatuta.
00:00 Joselu Anaiak taldearen dantzaldia. Gaixoa ni.

BAKAIKU

SANTIAGO FESTAK

UZTAILAK 21 Ostirala

HERRI MUGIMENDUAREN
ETXERA EGUNA
15:00 Denak etxera bazkaria.
Bazkalostea, Amaiur eta Aritzekin.
Herri mugimenduak antolatuta.
19:00 Festen hasiera: etxajua, japoniar bonbak, buruhandiak eta

Bakaikuko zortzikoa.
19:00 Ikurrak jasoko dira, plazako hagetan.

Herri mugimenduak antolatuta.
19:30 Dispertsioaren amaiera ospatzeko topa.
Herri mugimenduak antolatuta.
20:00 Auzatea, Bakaikuko ehiztari kuadrillaren eskutik.
20:00 BGAREN txozna irekiera.
Herri mugimenduak antolatuta.
20:00-22:00 Txorongo Txaranga.
00:00 Dj Kaiko eta DJ Zigich BGAREN txoznan.
Herri mugimenduak antolatuta.
00:30-04:00 Lehian taldearekin dantzaldia.

*Herri mugimenduaren oharra: Jantzi euskal preso eta iheslariak *Bakaikuko jaietara* elastikoa.

UZTAILAK 22 Larunbata

12:00-14:00 Haur eta gazteendako jolasak, plazan.
13:00 Bakaiku, Arbizu, Etxarri eta Altsasu Kantuz.
13:30 Auzatea, Hiru Haitz jubilatuek elkartearen eskutik.
14:00 Play Back erakustaldia, plazan.
14:30 Rock and roll bazkaria, eskoletako belardian.
Bazkalostean, kontzertuak.
15:00 Kalderete bazkaria, plazan (bero asko eginez gero, elkartean).
Bazkalostean bertsolariak: Mikel Goirienea, Ibon Larrazabal Larra, Asier Legarreta eta Jone Larrinaga, Eneko Fernandez eta Sakanako bertso eskola.
Gabriel Aresti barnetegiak antolatuta.
17:00 Pilota partiduak, Iturrarte pilotalekuan.
Benjaminak:
Haitz Larrañaga – Tasio Arbizu / Laihotz Aguirre – Aner Navarro
Kimuak:
Axio Saez de Adana – Haitz Lazkoz / Elene Razkin – Oier Mendinueta
Kadeteak:
Jokin Olarra – Berat Eizagirre – Asier

Zubiria / Alain Berastegi
Helduak:
De la Fuente – Lizarraga / Olaetxea - Lazkoz

18:00 Eztanda Txaranga, herrian zehar.
20:00 Auzatea, Gabriel Aresti barnetegiaren eskutik.
22:00 Zezensuzkoa.
Arratsaldean eta gauean Trikidantz taldearekin dantzaldia.
03:30 Gozaderik Djak, herri mugimenduak antolatuta, plazan.

UZTAILAK 23 Igandea

13:30 Chuchin Ibañez & Garibaldi Band taldearen emanaldia.
13:00-15:00 Puzgarriak, eskolako belardian.
13:30 Auzatea.
18:00 Etorkizuna dantza taldearen emanaldia, plazan.
19:00 Herri apostua, herri mugimenduak antolatuta, plazan.
20:00 Auzatea.
Bakarreko Etxea elkartearen eskutik.
20:00 *Abiadura Handiko Trenik EZ* herri mosaikoa, plazan.
Herri mugimenduak antolatuta.
22:00 Zezensuzkoa.
Arratsaldean eta gauean Trikiteens taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 24 Astelehena

HERRI MUGIMENDUAREN
AIZTI EGUNA
13:00 Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia, plazan.
12:00-14:00 Haurren Hiria, eskolako belardian.
Andra Mari ikastolaren eskutik.
13:30 Auzatea.
14:30 Jubilatuen bazkaria eta omenaldia, elkartean. Ondoren, Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia.
14:30 Aiztiko bazkaria. Ondoren, mozkor jolasak.
Herri mugimenduak antolatuta.
18:00 Aizkolariak.
18:00 Herritik buelta, herri mugimenduak antolatuta.
20:00 Auzatea.
Arratsaldean eta gauean Gabenara taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 25 Asteartea

HERRI MUGIMENDUAREN
MOZORRO EGUNA
13:00 Los Tenampas taldearen emanaldia, plazan.
13:30 Auzatea.
14:00 Mozorro bazkaria.
Herri mugimenduak antolatuta.
16:00 Txirrindularitza lasterketa, Aralar taldeak antolatuta.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 DJ Ki, plazan.

22:30 Herri afaria.
00:00-03:00 Ken Bat taldearekin dantzaldia.
00:00 DJ Tximeneas, BGA txoznan.

OLAZTI

SANTA ANA FESTAK

UZTAILAK 21 Ostirala

GAZTE EGUNA, MAISUENEA
GAZTETXEAK ANTOLATUTA
12:00 Txupinazoa eta karropoteoa.
14:30 Bertso bazkaria.
18:30 Mozkor olinpiadak, herrian zehar.
23:00 Kontzertuak: Mandroll, Ahuntzak eta Sheldons taldeak.

UZTAILAK 22 Larunbata

10:45 Kartel lehiaketako sari banaketa, Gartzia Ximenez plazan.
11:00 Zapi banaketa 2022. urtean jaiotako haurrei, Gartzia Ximenez plazan.
11:30 Hamaiketako, Gartzia Ximenez plazan.
12:00 Santa Anaren omenezko festak iragartzeko suzuria, udaletxetik.
Kalejira erraldoi, buruhandi eta La Cigarra txarangarekin.
Ezkila jotze nagusia.
13:00 Brindisa, gaztetxeak antolatuta, txoznan.
18:00-20:00 Goxo txaranga.
19:00-22:00 Progresive eta Techno House saioa: DJ Morti, Clinker tabernaren terrazan.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.
AHTrik ez kontzentrazioa, gaztetxeak antolatuta, plazan.
20:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin musika, San Migel plazan.
21:00 Bonba japoniarrek, Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30 Kontzertua: Zea Mays taldea, futbito pistan.
00:30-03:30 Joselu Anaiak taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 23 Igandea

12:00 Hamabietakoa, San Migel plazan.
San Miguel elkarteak eskainia
12:00 Bermuta erraldoi, buruhandi eta gaiteroekin.
13:00 Alegria Riberarekin bermut kontzertua, San Migel plazan.
17:00 Goitiberak San Sebastian ermitatik Ornako zubira.
Motor Sportek eta gaztetxeak antolatuta.
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.
Gehiegizko kontrolaren kontra



www.txartel.net

Konsumitzen dugun energia elektrikoa iturri berrizlagarrietatik dator eta erabiltzen dugun papera baxo inbarkatutakoa da



Zure bertako liburu denda

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477



Terraza freskoa eta giro itzela dugu

948 460 162 · Etxarri Aranatz

elkarretaratzea, plazan.
Gaztetxeak antolatuta.
20:00-22:00 Bidean erromeria taldearekin musika, San Migel plazan.
20:30 Goitiberen partaideen argazkia eta saskiaren zozketa, plazan.
Gaztetxeak antolatuta.
21:00 Japoniar bonba, Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-03:30 Bidean erromeria taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 24 Astelehena

12:00 Hamabietakoa Kamiogaina Jubilatuta elkartearen eskutik, San Migel plazan.
13:00 Roberto Urrutia y su Mariachiren bermut kontzertua, San Migel plazan.
14:30 Untxi-kalderete lehiaketa, Memoria Historikoaren parkean (euria eginez gero, Sutegi gimnasioan).
17:00 *¡Que buen día!* Ikuskizuna, Memoria Historikoaren parkean (euria eginez gero, eskolen pilotalekuan).
18:00-19:00 Herri kirolak, futbito pistan.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo

banaketa, San Migel plazan.
Errepresioaren kontrako kontzentrazioa, gaztetxeak antolatuta, plazan.
20:00-22:00 Trikidantz taldearekin musika, San Migel plazan.
21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
22:15 Bokata, txoznan.
Herri mugimenduak antolatuta.
23:30 *Akabo!* Cia Barsanti konpainiaren antzerkia, futbito pistan (euria eginez gero, Olaztiko frontoian).
00:30-03:30 Trikidantz taldearekin musika, San Migel plazan.
01:00-07:00 Techno gaua: Carvalho Nanox eta Morti, Clinker tabernan.

UZTAILAK 25 Asteartea

12:00 Hamabietakoa Santa Ana elkartearen eskutik, San Migel plazan.
12:00-14:00 Jolas parkea, Memoria Historikoaren parkean (euria eginez gero, Erburua kiroldegian).
13:00 Olaztiko Euskorleansekin bermut kontzertua, San Migel plazan.
14:30 Haurren bazkaria, Memoria Historikoaren parkean (euria eginez gero, Sutegi kiroldegian).

15:30-18:30 Jolas parkea, Memoria Historikoaren parkean (euria eginez gero, Erburua kiroldegian).
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.
Euskal Presoak kontzentrazioa, plazan.
Gaztetxeak antolatuta.
20:00-22:00 Gabenara taldearekin musika, San Migel plazan.
21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00 Txupito gaua.
Gaztetxeak antolatuta.
23:30 Cultura Urbana Vol. 2 dantza ikuskizuna, futbito pistan.
00:00-04:00 Djak: Asiron Barcelo eta McFlurry.
Gaztetxeak antolatuta.
00:30-03:30 Gabenara taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 26 Asteazkena

12:00 Bermuta erraldoi, buruhandi eta gaiteroekin, San Migel plazan.
Hamabietakoa Olaztiko Herri Mugimenduaren eskutik.
13:00 Bermut kontzertua, San

Migel plazan.
14:30 Jubilatuta eta adinduendako bazkaria, Kamiogaina elkartean.
Bazkalondoan, Ciclon taldearekin dantzaldia.
17:30 Pilota jaialdia:
Kimuak Club Sutegi:
Uriá – Lizarraga 1 / Arguelles – Lizarraga 2
Lau t'ardi:
Beñat Apezetxea / Arribilaga
Olaetxea – Apezetxea / De la Fuente – Lazkoz
18:00 Aurrehistoria eta arkeologia tailer esperimentalak
Aranzadiren eskutik, San Migel plazan.
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Hegaluzer parrillada, Vicente Argomaniz plazan.
Independentzia eta sozialismoa kontzentrazioa, plazan.
Gaztetxeak antolatuta
20:00-22:00 DJ Kulen eskutik musika, San Migel plazan.
21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30 Bocabets Comedia ikuskizuna, Intsumisioaren plazan.
00:30-03:30 DJ Tintzen eskutik musika, San Migel plazan.

ARAKIL

BAILARAREN EGUNA

UZTAILAK 25 Asteartea
09:00 Dianak, Arakilgo herrietatik. Goizean zehar, azokatxoak Itxasperrin.
11:00 2022an jaiotakoei ongi etorria, Itxasperrin.
11:15 Otamena eta musika, Itxasperrin.
12:30 Ongi etorria, Izurdiagan.
Adobezko labearen eraikuntza, elkartean.
14:30 Herri bazkaria, futbol zelaian.
17:00 Txapelketak: mus, bri, partxis eta twistter.
Puzgarriak eta barredora.
17:30 Kontzertuak: Ane Martija eta Makusai.
20:00 Sari banaketa.

ETXARREN

FESTAK

UZTAILAK 28 Ostirala

19:00 Txupinazoa.
19:15 2022an eta 2023an jaiotakoei festetako zapia ematea.
19:30 Herri jokoak.
DJ Gaztemusic.
22:00 Herri afaria.
00:00-05:00 DJ Gaztemusic.



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

IRURTZUN Oinezko martxa.

#BidezkoEtaNeurritzkoEnergia oinezko martxaren zazpigarren etapa, *Aralar Zaindu Dezagun – Gasbidea Aralartik* ez plataformarekin herri bazkaria. **14:00etan, Foru plazan.**

OLATZAGUTIA Txirringularitza.

Kadeteen mailako I. Olazti Saria, Burunda Txirringularitza Taldeak antolatuta. 58 km; Altamira bitan gainditu beharko dute. **17:00etan, Clinker paretik.**

ALTSASU Aurkezpena.

Altsasuko Xtrem laugarren edizioaren aurkezpena, ekimenaren argipenak eta izena emateko aukera, eta pintxopotea. **20:00etan, gaztetxean.**

ZIORDIA Kontzertua.

Chuchin Ibañez mariatxiaren kontzertua. **20:00etan, Etxaleku tabernan.**

LARUNBATA 22

URDIAIN Triatloia.

Sakanako XXI. Nafar Kirol Jokoen Triatloia. Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuak antolatuta, Sakana Triatloi Taldearen, Nafar Triatloi

Federazioaren, Aitziber elkartearen, Urdiaingo Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

09:35-09:50 Gazteen material kontrola

10:00 Gazteen lasterketa: 486 metro igeri, 8 km bizikletan eta 2,2 km korrika.

11:10-11:20 Kadeteen eta Haurren material kontrola.

11:25 Kadeteen eta Haurren lasterketa: 243 metro igeri, 3 km bizikletan eta 750 metro korrika.

13:00-13:10 Benjaminen material kontrola.

13:15 Benjaminen lasterketa: 108 metro igeri, 1,5 km bizikletan eta 350 metro korrika.

IGANDEA 23

ALTSASU Bargagain eguna.

Altsasuko Mendigoizaleak antolatutako Bargagain igoera.

09:00 Udaletxean elkartu.

11:00 Hamaiketako, Bargagaingo zelaian.

11:30 Urdaiazpikoaren zozketa.

12:00 Zortzikoa.

13:00 Zelaia garbitzea.

13:30 Jaitsiera.

UHARTE ARAKIL Aurkezpena.

Haurren aurkezpena San Migel goiangeruari. Ondoren, hurrek norberaren pergaminoa jasoko dute. **12:00ak inguru, Aralarko santutegian.**

ASTEAZKENA 26

IRURTZUN Udako zinema.

Dios mío, ¿pero qué nos has hecho? filmaren emanaldia. **22:00etan, Foru plazan.**

OSTEGUNA 27

IRURTZUN Kaiak.

Kaiak jardunaldia, Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuak antolatuta. **17:00etan, igerilekuan.**

OSTIRALA 28

ALTSASU Abentura proba.

Altsasu Xtrem probaren laugarren edizio, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Altsasuko Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta. **16:00etatik aurrera, gaztetxean.**

ZIORDIA Kontzertua.

Mano lenta eta DJ Miamiren emanaldia. **20:00etan, Etxaleku tabernan.**



ARTXIBOA


IRURTZUN Irati Moreno Blas artistaren *El vértigo del corazón* erakusketa.

Uztailaren 24tik aurrera. Pikuxarren.




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 21




Larunbata, 22



Igandea, 23




Astelehena, 24



Er **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminiooserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erausketak Irurtzunen



Sakanako triatloi campusean parte hartzen ari diren gazteak, monitoreekin.

Sakanako Haur Triatloirako prest

TRIATLOIA Urdiaingo Aitziber igerilekuek Sakanako Mankomunitateak antolatutako XXI. Sakanako Haur Triatloia hartuko dute bihar, larunbata. Guztira 44 haur eta gazte lehiatuko dira, 10:00etatik aurrera

Arrieta UAEn kokatzen dute

TXIRRINDULARITZA Carlos de Andrés kazetariak Tourreko TVE-ko emisio batean aipatu zuenez, Igor Arrieta Lizarraga txirrindulariak (Kern Pharma) Tadej Pogacar lider duen UAE taldearekin 2024rako kontratua sinatua izango luke. Albistea konfirmatuko balitz, uharte arakildarrak goi mailara egingo luke salto, Joxean Fernandez "Matxin"-en esanetara.



KERN PHARMA

TXIRRINDULARITZA Olaztik Iturmendiri hartu dio lekukoa


Larunbatean kadeteen IV. Iturmendi Saria jokatu zen (67 km). Unai Moranek (Cafe Dromedario) irabazi zuen, eta Luca Martinez (Sakana G.-Alea) bosgarren sailkatu zen.

Gaur, ostirala, kadeteen I. Olazti Saria jokatu da, 17:00etan, Klinkerretik abiatuta (58 km). Txirrindulariek Altamira bitan igo beharko dute.

Kintanaren urrezko egunak

DISKO JAURTIKETA

Larunbatean Iruñeko Larrabide estadioan Espainiako Federazio Autonomikoen Arteko Atletismo Txapelketa jokatu zen. Madril gailendu zen, eta Nafarroa bederatzigarren sailkatu zen. Disko jaurtiketan June Kintana onena izan zen (55,56 m). Uztailaren 7an, Bartzelonan, bere marka apurtu zuen bakaikuarrak (58,08 m).



NAFARROAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Maidet Betelu Ganboa SAKANA

Ohi denez, Urdiaingo Aitziber igerilekuetan eta inguruko paraje zoragarrietan jokatu da XXI. Sakanako Haur Triatloia, Sakanako Mankomunitateak Sakanako Triatloi Taldearen laguntzaz eta zenbait entitaterekin babesaz antolatutako proba.

Sakanako Haur Triatloia 10:00etan abiatuko da, gazteen mailako probarekin (18 luze- 8 km bizikletan-2,2 km korrika). 11:25ean kadeteen eta infantilen txanda izango da (9 luze-4 km bizikletan-1,1 km korrika) eta 12:30etan kimuena (8 luze-3 km bizikleta-750 m korrika). Bukatzeko, txikienak, benjaminak, 13:15ean hartuko dute irteera (4 luze-1,5 km bizikleta-350 m korrika).

Sakanako Haur Triatloian guztira 44 triatletek parte hartuko dute, tartean hamar sakandarrek, gehienak kadeteen mailan, baina baita juniorretan eta infantilen mailan ere. Bestalde, aipatzekoa da Urdiainen lehiatuko diren sakandar gehienak Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Triatloi Campusean parte hartzen ari direla.

Sakanako Triatloi Campusa

Sakanako Triatloi Campusa Altsasun antolatu da. Astelehenean hasi zen, eta uztailaren 28an despedituko da. 10:00etatik 12:30era igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa uztartzen dituen kirolean murgiltzen dira, Ekhi Congil eta Oihan Soto monitoreen esanetara. Igeriketa atala Dantzaleku igerilekuetan lantzen dute, Zelandiko igerileku estalia uztailaren eta abuztuaren itxita dagoelako, eta txirrindularitza eta atletismo saioak Dantzaleku inguruko paraje ederretan. "Gustura" daudela azaldu dute Congilek eta Sotok, saioak "arin" egiten zaizkiela.

Kaiak, Irurtzunen

Mank-ek Sakanako proba ikusitera hurbiltzera animatu ditu sakandarrak. "Eguraldia lagun izango dugu; goiz polita izango da" dio Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak. Halaber, uztailaren 27an kaiak jardunaldia prestatu du Mank-ek Irurtzungo igerilekuetan. "Dohainik izango da, baina antolatzeke izena eman beharra dago kirolak@sakanamank.eus webgunean".



Dani Saldisek piztu zuen suziria

ARETO FUTBOLA Xotako Dani Saldise jokalariek piztu zuen Irurtzungo festen hasierako suziria. Bere anaia Javi, Xotako jokalaria ohia, eta egungo Xotako beste hiru jokalaririk irurtzundarrak, Ion Cerviño, Roberto Martil eta Asier Llamas, izan zituen lagun. "Dardarka" zegoela aitortu zuen, "ohorea" zela, eta irurtzundarrek bera hautatu izanagatik "oso eskertuta" zegoela.



Irati Igoa Lakuntzako igerilekuetako sorosleetako bat da, eta kideekin moldatu da Melillako txapelketara joan ahal izateko.

"Hondartza futbolearen, zailena harean jokatzera moldatzea da"

IRATI IGOA SESMA FUTBOLARIA ETA PALISTA

HONDARTZA FUTBOLA Melillan jokatu den Espainiako hondartza futbol txapelketan parte hartuko du Irati Igoa Sesma etxarriarrak Nafarroako selekzioarekin

Maidar Betelu Ganboa ETXARRIARANATZ Futbola eta pala gutxi ez balitz, aurten hondartza futbolearen hasi da Irati Igoa Sesma etxarriarra. Nafarroako selekzioarekin uztailearen 24tik 27ra Espainiako hondartza futbola txapelketan lehiatuko da, Melillan.

Mulier taldeko futbolaria zara. Federaziotik iritsi al zitzazun Nafarroako hondartza futbola selekzioaren hasteko aukera?

Bai. Orain dela bi urte mutilak Espainiako hondartza futboleko txapelketan parte hartzen hasi

ziren. Aurten zirkular bat bidali ziguten Nafarroako emakumezkoen futbol taldeei nahi zuenak hondartza futbolearen izena eman ahal zuela esateko. Animatu, deialdietara joan, eta taldean hautatu naute.

"HASIERAN NAHI ZUEN TOKIRA JOATEN ZEN BALOIA ETA HAREAN IZUGARRI NEKATZEN GINEN"

Mulier taldean urte batzuk badaramatzazu.

Sei denboraldi egin ditut, eta aurki zazpigarrenari ekingo diogu. Gure mailari izena aldatu diote, eta orain gure taldea 3. federazio mailakoa da, laugarren maila balitz bezala. Euskal Herriari, Errioxan, Valladoliden, Salamancan eta Kantabrian jokatu dugu. Hiru sakandar gaude taldean: Maidar Granizo atezain altsasuarra; berriki fitxatu duten Eider Vicente bakai-kuarra; eta hirurok.

Zer moduz Nafarroako hondartza futbol selekzioan?

Gustura! Ekain hasieran hasi ginen entrenatzen, Iruñeko Ezkabarte kiroldegian prestatu ziren hareazko hiruzelai txikitik.

Futbolarekin alderatuta, zer da zailena hondartza futbolearen?

Harean jokatzera moldatzea. Hondartza futbolearen hiru denborak jokatzeko, bakoitza 12 minutukoa. Entrenatzen hasi ginen lehenengo astean lehertuta bukatu genuen: nahi zuen tokira joaten zen baloia, harean laster egitean askoz ere gehiago nekatzeko ginen... Baina gutxika hobetu dugu, eta nahiko ongi moldatzen gara orain.

Ezberdina al da baloia?

Tamaina berekoa da, 5 neurrikoa, baina bigunagoa da. Harean ez du botea berdin egiten. Hondartza futbolearen tokeak egin behar dira, txilenak, eta ahalik eta tiro gehien egin.

Zein postutan jokatzeko duzu?

Berez aurrelaria naiz, baina azken denboraldian erdilari postuan eta hegalean ere jokatu nuen. Edozein tokitan moldatzen naiz. Hondartza futbolearen lau jokalaririk daude: pibote bat, bi hegal eta atzekoa. Orain arte defentsa gisa jokatu dut.

Nafarroako emakumezkoen hondartza futbol selekzioa talde berria da. Zein dira helburuak?

Lehenik eta behin, esperientzia berri honetaz gozatzea eta ahalik eta lehiakorrenak izatea; eta, aurrera begira, taldearen esperientzia hartzea eta sendotzea. Talde nahiko polita gara. Espainiako Txapelketan hasieran multzoen ligaxka jokatu da, eta hor bi partida ditugu jokatzeko. Nahiko gure aurrera egitea eta gutxienez hiru partida jokatzeko.

Zeintzuk dira estatuko hondartza futbol talde onenak?

Asteburuan hondartza futboleko lehen eta bigarren mailako txapelketak jokatu ziren eta Melillak irabazi zituen. Melilla, Murtzia eta Valentzia dira onenak.

Noren kontra jokatu duzue hasierako ligaxkan?

Balear Uharteetako eta Murtziako selekzioen kontra. Murtziakoak ematen digu beldur gehien.

"PRESIORIK GABE GOAZ MELILLARA. ESPERIENTZIAZ GOZATU NAHI DUGU, LEHIAKORRAK IZAN"

Beraiek dira faborito, baina guk presio gabe jokatu dugu. Bihar, larunbatekin, abiatuko gara. Melillan bero izugarria aurrekusten da.

Hareak oinak erreko dizkizue.

Ikusi dugu jokalaririk batzuek hankak bendatzen dituztela, beroari aurre egin eta hanketan babak ez ateratzeko, baina ezin da ez orkatila guztia ez hanka guztia bendatu. Ikusiko dugu.

Zein sententzia duzue?

Esperientzia berria da, eta oso animatuta gaude. Ez dakit gure buruarengan konfiantza gehiegi ote dugun, baina ikusi ditugun partidak aztertuta, uste dugu zerbait egin dezakegula. Sorpresa emateko prest gaude.

Futbolari izateaz gain, palista handia zara. Zer moduz joan da 2022/2023 denboraldia?

Oso ongi. Txapelketa garrantzitsu guztietan finalera sailkatu naiz, baina ez dut txapelik jantzi, eta pena hori dut. Nafarroako trinkete eta pala txapelkunordea naiz, Euskal Herriko trinkete eta pala txapelkunordea, GRABNI txapelketako pala txapelkunordea, eta duela bi aste Guadajajaran Espainiako Paleta Goma txapelkunordea. Emakume Master Cupeko Nafarroako Torneo txapelkunordea ere bai.

Nola egiten duzue guztia uzartzeko?

Gasteizen kirol gradua ikasten dut, eta horri entrenamendu guztiak gehitu behar dizkiot. Topera nabil, Mulierko haurrak ere entrenatzen ditudalako. Guztia ongi planifikatuta, ez dakit nola, baina iristen naiz. Aurten pala nabarmen gutxiago entrenatu dut, eta agian horregatik txapela lortzeko puntu hori falta izan zait. Baliteke. Horregatik diot lortutakoarekin oso kontentua nagoela.

Eta udan, Lakuntzako igerilekuetako sorosleetako bat zara.

Joan zen urtean Urdiaingo igerilekuetan egon nintzen; eta, aurten, Lakuntzan. Igeriketara klaseak ere ematen ditut.

Mulierren aurki hasiko zarete lanean. Melillatik bueltan hasiko gara entrenatzen. Aurre denboraldiko partida dezente ditugu, sorosle lanarekin uzartu beharrekoak. **Gorka Pascua altsasuarrak emakumezkoen Osasuna talde nagusia entrenatzeko ardura hartu du.**

Altsasun izan nuen entrenatzaile, eta izugarri poztu nintzen berarengatik. Zoriondu nuen. Gogotsu dago, eta bera animatzaile joango gara, jakina!

Desiratutako txapela, buruan

HERRI KIROLAK Mikel Lasarte Artolak San Fermin Motozerra Txapelketa irabazi zuen, urte luzez txapeldunordea izan eta gero. Sakanako Harri Jasotze irakaslea ere bada, eta bere ikasleek Nafarroako Txapelketan egindako lan zoragarriengatik "oso pozik" dago

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN
Mikel Lasarte Artola jaiotzez azpiroztarra da, baina aspaldi bizi da Irurtzunen. Herri kirolari petoa, harri jasotzailea da, Sakanako Harri Jasotze Eskolako irakaslea eta azken urteetan beste zaletasun bat du: motozerrarekin egurrean eskulturak egitea. Azken urteetan San Fermin Motozerra Txapelketako txapeldunordea izan da; eta aurtun, azkenean, horrenbeste amestutako txapela lortu du. "Ez dakit zehatz zenbat parte hartze izan ditudan, zazpi-zortzi inguru, eta gehienetan bigarren gelditzen nintzen, lehendabizikotik, -Juan Usin izan da azken urteetako txapeldun nagusia- puntuazio oso txikira. Aurtun ongi joan da, eta txapela lortu dut. Txapelketa prestatzeko entsegu mordoa egin nuen: irudi asko eta asko tailatu ditut. Gainera, finalean entseguetan baino hobeki egin nuen saioa; erritmo oso onean aritu nintzen, eta lan ona egin nuen. Txapela janztea tokatu zen, eta oso pozik nago" aitortu du Lasartek.

Espresioa eta xehetasunak

Juan Asinek, Peio Kañamaresek eta Mikel Lasartek parte hartu zuten txapelketan. Ordu erdiko epean motozerrarekin bi irudi edo eskultura egin behar zituzten, enborretik hasita. Txapela erabakitzean faktore asko baloratzen ditu epaimahaiak. "Originaltasuna baloratzen da, eskulturaren dinamismoa edo mugimendua, eskulturaren espresioa, zailtasun teknikoa -zenbat eta zailagoa izan orduan eta gehiago baloratzen da-, eta zurezko eskulturaren xehetasunak ere baloratzen dira. Faktore dezente". Bi epaile egoten dira, euren balorazioa egiten

dute, puntu guztiak batu, eta horrela erabakitzen da irabazlea. "Oilar bat egin nuen, xehetasun asko zituena, eta onddo animatu bat. Onddoaren espresioa eta oilarraren xehetasunak izan ziren gainontzekoekin alderatuta gehixeago puntuatu zirenak eta garaipena eman zidatenak". Sanferminetan lagun artean bazkalduta ospatu zuen txapela, "modu xumean, baina izugarriko pozarekin". Txapela lortzeagatik "bizipoz izugarria" du. "Txapela lortzeak animo handia sortzen du, lanean jarraitzeko eta lana ahalik eta hobekien egiteko ilusioa".

Harria eta zura, pasioa

38 urte inguru zituela hasi zen Lasarte motozerrarekin irudiak egiten. "Anaia zurgina dut eta etxean tailatzen eta gubiarekin lanean dezente aritu izan naiz. Motozerrarekin irudiak egitea probatu nuenean, guztiz harripatu ninduen. Eta geroztik geratu gabe ari naiz, ordu mordoa sartzen ditut. Harri jasotzearekin batera, nire pasioa da". Egin zuen lehen irudia "hontza bat izan zen, hegoak zabalik, baina orain egiten ditudanarekin alderatuz, nahiko zakarra atera zitzaidan (kar, kar). Hala ere, lehendabiziko lanarekin nahiko pozik geratu nintzen".

Mikel Lasartek ez daki motozerrarekin zenbat irudi egin ote dituen, baina asko dira, "ikaragarri. Joan zen urtean, esaterako, enkargatutako 30-40 hontz

"TXAPELAK LANEAN JARRAITZEKO ILUSIOA SORTZEN DU, BIZIPOZ IZUGARRIA"

MIKEL LASARTE

egingo nituen lasai. Erakustaldietako irudiak eta bestelako enkarguak eta lanak kontuan hartu gabe. Ilundaingo baso biziduna, Berriozarko ibilbide tematikoa eta Sarrigurengoa, esaterako, bere sormena dira.

Harri jasotze eskola, bikain

Lanbidez, Ilundaingo Haritz berri baserri eskolako irakaslea da Lasarte. Horretaz gain, ordu asko sartzen ditu Sakanako Harri jasotze eskolan, hasieratik bertako irakaslea baita. Egun, inoiz baino hobeki dago eskola. "Orain arteko parte hartzerik handiena dugu: bost mutil eta bi neska daude harri jasotzean trebatzen, eta maila onean dabiltza, gainera. Oso pozik nago, harrobia dagoelako eta jendea gure kirolera animatu delako. Ea gehiago animatzen diren".

Sanferminetan jokaturako Nafarroako Harri Jasotze Txapelketan parte hartu zuten Oskar Aguas berriozardarra eta Aitor Oiarbide etxarriarra eskolako ikasleak dira, eta beste bi partaideak, Albaro Zugarrondo eta Josetxo Urrutia, eskolan trebatu zirenen. "Guztiak gure eskolatik pasatu dira; ilusio handia sortzen du horrek". Nahiz eta Aitor Oiarbide txapela eskura izan, azkenean Aguas izan zen txapelduna. "Aitor oso ongi hasi zen, aurretik zegoen, baina ezin izan zuen azken txanda bukatu. Alde horretatik pena, baina txapelketa bikaina egin du eta pozik gaude. Bazkari ederra egin genuen ospatzeko".

Udan plazetako erakustaldiak dituzte aurretik, eta irailetik aurrera Sakanako Harri Jasotze Eskolan betiko martxan hasiko dira, "hurrengo urteko txapelketa prestatzen, gurean epe luze lan egin behar baita".



Mikel Lasarte, San Fermin Motozerra Txapelketan lanean. UTZITAKOA



Lasarteren onddoa eta oilarra. UTZITAKOA



Mikel Lasarte, txapelarekin. UTZITAKOA



Lasarte, ezkerrean, Harri Jasotze txapelketan Aitor Oiarbide laguntzen. IÑAKI PORTO

Rantxerak berrasmatzen

Chuchin Ibañez musikariak 30 urte daramatza mexikar doinuak zabaltzen. Festetan eta ospakizunetan rantxeretakako "beti" toki dagoela esan du mariatxiak. Gaur eta etzi Ziordian eta Bakaikun egonen da, bi ikuskizun zeharo desberdinekin

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Euskal Herriko festetan eta ospakizunetan orokorrean, eta Nafarroakoetan bereziki, bada go musika estilo batenganako joera: rantxerak eta mexikarrak. Ez dago festa egitaraurik mexikar estiloko talderik gabe Sakanan. Guztira, Nafarroan rantxera eta mexikar musika estiloko 30 bat talde eta musikari daudela esan du Chuchin Ibañez Miranda Argan jaiotako mariatxiak. Ibarra oso ongi ezagutzen du abeslariak, eta gaur, uztailak 21, ostirala (20:00etan), Ziordiko Etxaleku tabernan *Show Planet Rantxerock* ikuskizuna emanen du eta igandean, uztailak 23, igandea (13:30ean) Bakaikuko festen baitan Garibaldi Band taldearekin kontzertua emanen du. Irurtzunen, Olaztin, Etxarri Aranatz eta abarren aritu izan da ere.

Chuchin Ibañezek lehenengo mexikar abeslari jantzia zazpi urterekin jaso zuen opari, eta ordutik horrela igotzen zen eszenatokira. "Nire gurasoek festa areto bat zuten eta 1970ko eta 1980ko hamarkadetan berbenak antolatzen zituzten eta orkestrak etortzen ziren. Horietako bat Duo Gala izan zen". Garai horretan Duo Gala estatu espainiarreko rantxeren talde esanguratsuenetariko bat zen. "Ni oso txikia nintzen, baina ahal nuenean eszenatokitara igotzen nintzen: eskolako ikuskizunean, festetan...". Duo Galako kide batek oholtzaren gainean ikusi eta telebistara eraman zuen Chuchin Ibañez. "Hueskan beste haur bat zegoen nire antzeko dohainekin; biak elkartu eta Duo Gala Junior taldea sortu zuten". 1978tik 1984ra Duo Gala talde nagusiarekin jotzen aritu ziren.



Chuchin Ibañez musikaria kontzertu batean. UTZITAKOA

"Baina gero bizitzaren gauzak: futbola asko gustatzen zitzaidan eta musika utzi nuen futbolearen aritzeko". Hamasei urtez "ezer ez" abestu gabe egon zen Ibañez, eta futbolearen Espainiako selekzioarekin jokatzera iritsi zen. "Baina lesio bat izan nuen eta utzi behar izan nuen". Ez zuen futbola guztiz utzi, eta herrian Castillo Futbol Clubeko eskolan entrenatzen hasi zen. "Bertako koordinatzaile batek esan zidan abesten nuenez ea zergatik ez nuen kluberako dirua lortzeko disko bat kaleratzen". 1999an grabatu zuen, eta horrela hasi zen Chuchin Ibañez rantxera abeslariaren bigarren etapa.

Aro berria

Bigarren etapa beste modu batera planteatu zuela azaldu du Ibañezek: "Banekien ez nuela lehenengoan lortutakoa errepikatuko; besteak beste, jende oso ospetsurekin abestu izan genuen". Momentu horretan komertziala zen eta futbol taldea laguntzeko diskoa oso arrakastatsua izan zen. "Emanaldiak egiteko deitzen hasi ninduten, baina ez neukan ez bandarik ez ezer". Denbora tarte batez musika eta lana uztartzen jarraitu zuen, eta zerbait "klasikoagoa" jotzen zuen, baina 2001. urtean Kojon Prieto y los Huajolotes taldea banatu ondoren sortutako Los Chihuahuas taldean sartu zen. "Naparmex egiten genuen, gaur egun Los Zopilotes egiten dutenaren antzeko zerbait. Gaueko eta parrandarako talde bat zen". Garai horretan "gazteago" zen eta "parrandak" gehiago deitzen zuen. "Herri batera jotzera joaten ginen eta parrandan hiru pasatzen genuen". Baina denborarekin uztea erabaki zuen. Mexikar musika oinarri, hainbat formaziotan egon da Chuchin Ibañez, pandemia iritsi arte. "Pandemiak min handia egin zigun".

Pandemiaren ondoren bakarrik jartzea erabaki zuen Ibañezek: "Jendeak betiko Chuchin kontratatzen du, eta ni egoerara egokitzen naiz. Esaterako, Ziordiko kontzertua Rock Castillo deitutako Mexikoko musikari batekin joango naiz eta Show Planet Rantxerock deitutako emanaldia egingo dugu eta Bakaikun Garibaldi Taldearekin klasikoagoa eta mitikoagoa izango da, baina euskal abestien bertsioak ahaztu gabe". Espektro "arraro bat" betetzen duela azaldu du Ibañezek: "Musikari

bakarra naiz eta eskaerara egokitzen naiz. Ni bakarrik abestetik taberna txiki batean eszenatoki handi batean zazpi musikarirekin abestera iritsi naiten". Eskaintza handi bat ematen du, jendeak nahiago duena aukeratu ahal izateko. "Programa ofizialetatik asko ateratzen naiz, eta taberna zirkuituak egiten ditut. Horrek denboraldi altuan, udan, ez ezik, neguan ere musikaz bizitzak ahalbidetzen dit". Berrasmatzaren boterea aipatu du musikariak.

Txarangekin, gaitekin, bandarekin... "Chuchin Ibañez markaren barruan proiektu asko daude; orain Garibaldi Taldearekin bira egiten ari naiz, gure banda dena, eta hiru musikarrietatik zazpira joan gaitzake. Bestetik, Show Planet Rantxerock delakoa dago ere...". Beste saio batzuetan bakarrizketak eta umorea musikarekin uztartzen du Ibañezek, eta Nerea Arrozperekin, Gorka Aginagalderekin eta abarrekin emanaldiak egin ditu ere.

Marka

"Chuchin Ibañez betiko rantxerak egiten dituen abeslaria da, eta originaltasunaren bila beste gehigarri gehiago sartzen ditut". Los Secretos, Mana, Ska-p, Amparanoia, Kojon Prieto y los Huajolotes, Huntza, Alaitz eta Maider eta abarren taldeen bertsioak egiten ditu Chuchin Ibañezek haren emanaldietan, egoeraren arabera. 30 urteko ibilbidea du oinarrian mexikar musika egiten, "eta Chuchin gustatzen ez zaionari berdindio zer formatuta joaten naizen ez nauela kontratatuko. Gustatzen zaionari ere, berdindio zaio nola joaten naizen". Taberna txiki batean "San Migel garagardoan kutxa baten gainean" kontzertuak ematek Fito Cabralesekin, Aurora Beltranekin eta abarrekin kolaborazioak egitera pasatzen da musikaria, eta rantxerendako "beti" dagoela toki aldarrikatatu du. Taldeen artean harreman ona dutela esan du ere musikariak.

"OINARRIAN CHUCHIN IBAÑEZ MARIATXIA DAGO, ETA GERO GEHIGARRIAK DITUT ERE"

"Sozializatzeko ekimen bat da Altsasu Xtrem"

Uztailaren 28an eta 29an Altsasu Xtrem ekimenaren laugarren edizioa antolatu dute Altsasuko Gazte Asanbladak eta Gazte Koordinadora Sozialistak. Patxi Calleiras Benito eta Jare Maiza Altzelai abentura eta kirol probaren antolakuntzako kideak dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer da Altsasu Xtrem?

P. Patxi. Altsasu Xtrem bi egunetan egingo den kirol eta abentura ekimena izango da. Uztailaren 28an, ostiralarekin, 16:00ak inguru hasiko da kastinarekin; eta, ondoren, proba batzuk jokatu dira. Akanpalekua muntatu da; eta, hurrengo egunean, proba gehiago jokatu dira. Eguerdia aldera bukatu da, eta 20:00ak inguru gala bat egingo dugu eguneko irudiak ikusteko. Elkarrizketaren batekin eta afari-merenduarekin emango diogu amaiera egunari.

J. Oraiñ dela hamar urte inguru sortu zen, AGAren baitan. Sozializazio ekimena zen, gazteen artean denbora pasatzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko.

2 Zein dira helburuak?

P. Gure helburua da gazte langileon interesari erantzuten



Patxi Calleiras Benito eta Jare Maiza Altzelai Altsasu Xtremeko antolatzaileak.

dien sozializazio eredu berri baten eraikuntzan adin eta inguru askotako gazteen arteko zubiak eraikitzea, gazteen arteko sozializazioa bultzatzea eta gazteen arteko komunitate politiko sendo bat eraikitzea.

3 Nolakoak izan ziren aurreko edizioak? Berrikuntzarik edo aldaketarik?

J. Hau nire lehenengo Xtrema izango da, eta edizio honetako aldaketa GKS batu dela da. Bere udako sozializazio ekimenen barruan sartzen zen horrelako ekimen bat antolatzea, eta GKS AGA gonbidatu zuen. Bien artean prestatu dugu.

P. Nik aspaldi Altsasu Xtrem batean parte hartu nuen: 2016an; eta aurreko edizioak antzekoak izan ziren. Aurtengo berrikuntzak bi dira: GKS eta AGA antolakuntzan elkarlanean ari dira, eta gau bat hartuko da. Bi eguneko ekimena izango da.

4 Zergatik orain?

J. Pandemiaren konfinamenduaren ostean hartu genuen berriz ideia, baina egoerarengatik bertan behera gelditu zen. Ideia ona iruditu zitzaigun pandemiak eragindako sakabanaketa horri eta kuadrillen artean hainbeste harremanetan ez jartzeari aurre egiteko.

5 Zenbat parte hartzaile egongo dira? Adin tarterik dago?

P. Momentuz, 40 pertsonen eman dute izena, eta oraindik izena emateko aukera dago; beraz, jendea izena ematera animatzen dugu. Gaur, uztailak 21, ostirala, gazte-txearen pintxopotean ekimenaren aurkezpena egingo dugu, eta bertan izena emateko aukera izango da. **J.** Ez dugu adin tarterik jarri. Edonork eman dezake izena. **P.** Adin guztietako jendeak eman du izen: oso gazteek, baina baita helduek ere.

6 Nolakoak izango dira probak? Zer eraman behar dute parte hartzaileak? Zer jarriko dute antolatzaileak?

P. Denetarik probak prestatu ditugu: kirol probak, estrategia-koak, abileziakoak, jakintzak-koak... Ez dira goi mailako kirol probak izango, baizik eta pertsona orok egin ditzakeenak.

J. Parte hartzaileek motxila bat eraman behar dute, eta bertan

bainujantzia, zapatilla zaharrak, mendirako arropa edo eroso dena... Gaurko pintxopotean hobeto eta zehatzago azalduko dugu zer eraman behar duten parte hartzaileak. Antolakuntzakook otorduak eramango ditugu, eta probak egiteko behar diren material eta baliabide guztiak.

7 Gutxieneko prestakuntzarik behar da? Parte hartzaileak entrenatu beharko dira?

J. Ez. Azkenean, gure helburua sozializatzea da eta gazte guztien gain pentsatu dugu. Proba mota asko izango dira, ez bakarrik kirol probak. Denetarik izango da.

8 Lau talde egongo dira. Zeren arabera osatuko dituzue? Nolakoak izango dira kastinak?

P. Oraingoz ez ditugu taldeak egin, izena emateko epea oraindik irekita dagoelako. Behin ixten dugunean, zozketa bidez egingo ditugu taldeak. Kastinak prestatzen ari gara. Ideia batzuk ditugu buruan, baina ohiko kastin bat izango da: jendeak bere burua aurkeztu beharko du, eta horrelakoak.

9 Talde bakoitzak kapitain bat izango du. Zein izango da beraien lana?

P. Kapitainak Ines Moreno, Ander Corchero, Nahia Migel eta Pello Bengoetxea izango dira. Talde bakoitzaren lehen eguneko zereginetako bat kapitainak aukeratzeko izango da. Kapitainaren funtzioa taldeak gidatzea da.

10 Zuzeneko jarraipena egingo duzue?

J. Ez, zuzen-zuzeneko ez, baina sare sozialetan egunaren amaieran laburpen moduko bat igoko dugu. Galan ekimeneko bideoak eta argazkiak proiektatuko ditugu. Xtremari buelta bat emango diogu.

11 Proiektu edo ekimen gehiago prestatzen ari zarete?

P. AGA urriaren 5ean gazte-txearen 33. urteurrena dauka. Oraingoz ez gara ezer prestatzen ari. Xtremarekin buru-belarri ari gara, eta festak ere bertan ditugu. Baina 33. urteurrena buruan dugu. GKSren aldetik, urriaren 11tik 15era Atarrabian Gazte Topagune Sozialista daukagu, eta pixkanaka horri begirako lanetan hasi gara.

BADAKIZU ZER EGITEN DUGUN?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

ILUSTRAZIOA

KOMUNIKAZIOA

DISEINU KORPORATIBOA

PUBLIZITATEA

DISEINU EDITORIALA

MAKETAZIOA

APLIKAZIOAK

DISEINU GRAFIKOA

BISITA TARTETAK